

KONTU ZAHARRAK BERRITUZ
(Ataun, 1923 - Estibaliz, 2011)
2012ko ilbeltzaren 28an

ATAUNIKER kultur elkarteak antolatuta, Joxe Arratibeli heriotza-urteurreneko omenaldia egin zitzaion udaletxean. Neguaren bihotzean sukaldeko kontu-giro epelaren bila hurbildu ziren ikusle eta entzule herritar, kanpotar eta adituak ez ziren damutu eta gogo biziz jarraitu zuten ekitaldia.

Ataungo Ergoiena auzoko Sarriartegarako baserrian jaio zen 1923ko abenduaren 8an. Txiki-txikitatik izan zuen kontu-giroa etxean, gurasoak eta auzoko Felipe Arratibelengandik batez ere.

Hainbestetan entzun ondoren, buruan jaso zituen eta, handik puxka batera, Lazkaoko prailekumeei hasi zitzairen kontatzen. Ameriketan izan zenean, berriz, kontaktetan erdaraz jardun beharra izan zuen. Zahartzaroan berritu eta, bultzaka-bultzaka, idazteari ekin zion. Ondorioz, 1980an KONTU ZARRAK izeneko liburua argitaratu zuen eta gero etorri ziren IZUGARRIAK etab.

Goñiko zalduna, Txerri beltza, Txomin ipurdi, Etsai zaharra, Jentila eta artzaina, Aingeru goardakoa.

argazki handi bat izan zen gertatutakoaren lekuko: begirada gozoa, garbia, irribarretsua, aratza. gizatasun soilduna, munduari irekia eta, bide batez, barrura bildua.

1997ko bideoa aurkeztu zuen Santi Etxeberriak. Bertan Joxeren biografia: irudiz irudi eta hitz esanguratsuz josia, baita Bernardo Atxagaren maisu-berbak ere, kontu zaharrak kulturaren apaletan dagozkien atrilean ipiniz.

Jarraian Rufino Mujika itsasondotar beneditarrak berarekiko ezagutzaren berri eman zuen. Handi-manditan ibili gabe, bazi-tuen kolkoan gorderik berarekin izandako bizipenak: Enirio aldeko kamamila-bilketak, Arkaka aldeko amuarrain-harrapaketak eta beti Joxeri eskatu ohi ziotena: baiño geo kuntu zarrak e, Joxe!

Joxe Bikuñak Pernadoren zorrak izeneko kontu zaharra kontatu zuen. Ipuin edo esaunda hau Pernando amezketarren bilduma ofizialetan ez da ageri eta bere trikimailu eta argitasunaren berri ematen digu.

Jon Munduate, Sara Aramendi, Leire Tobar eta Aitana Perez hurrek Ardiak eta belarra ipuinaren berri eman zuten, patxadazko plazatasuna agertuz.

Joxe Arratibel, bitartean, lasai asko eta astiz zegoen esaten zen guztia jasoz. Bere artean pentsatuko zuen: ba, eztittuk gaizki ai!

Miel Anjel Elustondo idazlearen txanda izan zen hurrengoa. Curriculum luzeko gizasemea, baina besterik gabe azpeitiarra. Ezin hasirik egon zen une batez, paperak esku artean, hitzik ezin jautiz, nola hasi, hormako Joxeri begiratu. atze-aurreak, ordea, indartu egin zuen eta pixkanaka ekin zion bideari. Bide ezaguna berarentzat, ez baitzuen alferrik ezagutu hainbat urtez Joxe Arratibel bere Estibaliz maitean. Hunkituta jardun zuen, Arratibelen bizitzaren zertzeladak aipatuz: akordatzen al tzea, Joxe? Behin eta berriz errepikatuz. Biografiari astindu ederra eman zion eta entzuleok Estibalizko fraide zaharra ezagutzeko parada egokia izan genuen.

Ondoren, Epistolea izeneko abestia kantatu zuten a capella gregoriano doinuan Dionixio Etxeberriak, Joxe Bikuñak eta Jexux Mari Munduatek.

Geroxeago, Andregai sorgiñe kontu zaharraren txanda izan zen, Jon Aizpuruaren hitzetan. Armiarma-itxurako sorginaren ibileren berri eman zigun eta bazirudien, une batez, habetik behera azalduko zela.

Argazki-saila izan genuen amaitu aurretik eta erremateztat, Nikolas Goikoetxeak intonaturik, San Nikolas kanta zaharra, Ataungo Ergoiena auzoko erara; guztion artean abestu genuen. Joxe Arratibelen kontu zaharrek zera erakutsi digute: kontu-kontari aritzea gaurko mundutarron presak uxatu eta sendatzeko botika aproposagorik ez dela. Horra, bada, Joxe Arratibelen mezua. Juntaizotarako aitzakia hoberik ba al da?

Jexux Aizpurua Barandiaran